



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2022KO MARTXOAREN 16KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, 2022KO MARTXOAREN 17AN DEITUTAKO GREBAN BIZKAIKO ADINEKOEN EGOITZEN SEKTOREAN (EGOITZA-ZENTROAK, ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK ETA EGUNEKO ZENTROAK) ERKIDEGOARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUSTEA BERMATZEN DUENA.

ELA sindikatuak greba-deialdia egin du 2022eko martxoaren 17rako Bizkaiko Egoitzen sektorean (egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak). Greba 2022ko otsailaren 7an gaueko txandan hasiko da, 00:00etan, eta hilaren 8ko gaueko txandan amaituko da, 24:00etan, 24 orduko lanuztea izango delarik.

Aurkeztutako deialdiaren arabera, grebaren arrazoia honako hau da *“Egoitzen sektoreko hitzarmena berritzea, ELAk negoziazio-mahaian aurkeztutako plataforman jasotako edukiekin. Akordioak, besteak beste, honako gai hauek jaso beharko ditu: soldata-igoerak, kontratazio mugagabea, ITSen hobekuntza, baimenen eta lizentzien hobekuntza, etab. Halaber, hitzarmenaren aplikazioa bermatuko duten klausulak”*.

Bestalde, LAB sindikatuak greba-deialdia egin du 2022ko martxoaren 17rako, 0:00etatik 24:00etara, Bizkaiko Hirugarren Adineko Zentroen V. Hitzarmen Kolektibo Probintzialaren funtzio-eremuan dauden Bizkaiko adinekoen egoitza-zentroetako langileentzat. 2022ko martxoaren 16an hasten den eta 2022eko martxoaren 17ko arratsaldeko ordutegiarekin amaitzen den gaueko ordutegia ulertuzat joko da.

Deialdia egin duen sindikatuaren arabera, grebaren helburua honako hau da: *“greba-jakinazpen honetan aipatutako enpresa-elkarteek (GESCA, LARES ETA ELBE) onartzea fede onez negoziata dadila eta langileak eta haien funtsezko funtzioa aitortzeko keinu gisa, aldarrikapen plataformetan jasotako lan hobekuntzak onar ditzatela”*.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dazakenez herritarren gainerako oinarriko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea

komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarritzko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarritzko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Egun bakarreko greba da, lanaldi osokoa, eta eragindako zerbitzuen erabiltzaileen autonomia batetik bestera aldatzen den desgaitasun-maila batek mugatzen duen sektore bati eragiten dio.

Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta morala eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Ezin da alde batera utzi deitutako greba COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren eta osasun- eta gobernu-agintariek hartu dituzten neurrien eta gomendioen barruan dagoela. Joan den 2021eko abenduaren 3tik, Euskal Autonomia Erkidegoa, berriro ere, osasun-larrialdiko egoeran dago, COVID-19aren pandemiak Euskadin eragindako osasun-larrialdiko egoera deklaratzeko duen Lehendakariaren abenduaren 2ko 44/2021 Dekretuak ezartzen duen bezala, COVID-19aren pandemiaren kudeaketarako neurri buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen II. tituluan zerrendatutako alerta-maila baxuena gainditu baita.

Ezin da ahaztu deitutako greba COVID-19k eragindako osasun-krisiaren eta osasun- eta gobernu-agintariek hartutako neurri eta gomendioen barruan kokatzen dela.

Lehendakariaren otsailaren 11ko 5/2022 Dekretuak, 2022ko otsailaren 14tik aurrerako ondorioekin, COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-larrialdiko egoera Euskadin amaitu dela adierazi du, abenduaren 2ko 44/2021 Dekretuan xedatutakoaren arabera indarrean baitzegoen. Halere, indarrean dagoen dekretuaren 4. artikuluan neurri berriak hartzeko araubidea ezartzen da, eta Osasun Sailak ahalmena du berraktibatzea edo prebentzio- eta euste-neurriak abian jartzea une oro zehazteko.

Hori dela-eta, Osasuneko sailburuak 2022ko otsailaren 11ko Agindua eman du, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurri buruzkoa, lehendakariak osasun-larrialdiko egoeraren amaiera adierazi ondoren. Agindu horren eranskineko 1. puntuan, neurri orokorrak eta prebentzio-neurriak jasotzen dira. Gainera, 4. artikuluan aurreikusten da Aginduaren eranskinean jasotako neurriak osatu ahal izango direla administrazio eskudunek onartutako segurtasun-plan espezifikoekin, antolaketa-protokoloekin eta jarduera-sektore bakoitzari egokitutako gidekin.

Aginduak, besteak beste, COVID-19aren pandemia dela-eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hainbat eremutarako egin dituen osasun-protokolo espezifiko onartu eta eguneratuak aipatzen ditu.

Eremu soziosanitarioan, SARS-CoV-2ak eragindako infekzio larriekiko urrakortasun bereziak eta zentro horietako erabiltzaileek izan dituzten heriotza-tasa altuek, bai eta ingurune itxi horietan pertsonen kontaktu estuak eta hurbiltasunak transmisioari mesede egin izanak ere, COVID-19ak eragindako ondorioak bereziki larriak izan dira kolektibo horrengan.

Horregatik, Osasun Sailak etengabe berrikusten dituen hainbat dokumentu egin ditu egoitza eta zentro soziosanitarioetan SARS-CoV-2 koronabirusari aurre egiteko neurriak eta gomendioak zehazteko. Zentro soziosanitarioetarako egindako protokoloaren azken eguneratzea 2022ko otsailaren 14koa da. Horrez gain, eta garbiketaren eremuari dagokionez, nabarmentzekoa da egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitzeko eta desinfektatzeko neurri buruzko jarraibide teknikoak, 2020ko apirilaren 1ekoa.

Adineko pertsonen egoitza-zentroen eta eguneko zentroen kasuan, osasun-agintariek emandako protokoloen eta arauen jarraipena egitean kontingentzia-planak aplikatzeko, ezinbestekoak izan dira neurri batzuk, tartean nabarmentzekoak: egoitza-zentroetako eta eguneko zentroetako arkitektura- eta langile-sektorizazioak, egoitza-zentroetako erabiltzaileak tratamendu-kohorteetan sailkatzea, eta langileentzako politika bat ezartzea, zeinak berekin ekarriko duen norbera babesteko ekipamenduen erabilera estentsiboa izatea (inplikazio guztiekin) eta langileak beren kohortera mugatuta egotea.

Gaur egun, oraindik ere, beharrezkoa da neurri horiek aplikatzen jarraitzea eta horrela jasotzen du Zentro Soziosanitarioetan Covid-19tik babesteko protokoloak. Modu zehatzagoan, 3. Atalean, «Infekzioa prebenitzea eta kontrolatzea egoitza-eremuan» izenekoan, langileak kaletik lan-eremura sartzeko eta irteteko, erabiltzaileak lekualdatzeko, materialez eta elikagaiez hornitzeko edo hondakinak maneiatzeko ezarritako zirkuituei eutsi behar zaiela adierazten da, bai eta langileak erabiltzaile-talde berari esleitzen saiatuko direla ere, birusa egoitzan sartzen bada agerraldiaren hedadura minimizatzen. Eta, 8. atalean, kohorteen, paziente-tipologiaren eta berrogeialdien eta isolamenduen iraupenaren arabera sektorizazio-neurriak mantentzen dira.

Ildo beretik jo zuen Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, otsailaren 8an izan zen grebarako, 2022ko urtarrilaren 31n egin zuen azken txostenean. Nahiz eta egungo egoera onera joan izan, txostenak azpimarratzen du, modu orokorrean, zentro soziosanitarioetarako protokoloa mantendu behar dela du eta zorrotz betetzeko beharra azpimarratzen du. Garbiketari dagokionez, jendeari arreta ematen dioten lantokien garbitasuna eta, horrekin batera, aireztapen eraginkorra bermatzea beharrezkoa dela gaineratzen du, oinarritzko prebentzio-neurria baita.

Azkenik, txostenaren amaieran ondorioztatzen denez, gaur egungo muturreko transmisio-egoeran, egoiliarak kutsatzeko eta langileen gaixotasunagatiko lan-bajen arrisku handia dagoenean, ezinbestekoa da gutxieneko zerbitzuen %100 ziurtatzea honako eginkizun hauetan: egoiliarak artatzea, langileak sartu eta irteteko zirkuituak mantentzea eta erabiltzaileak lekualdatzea, materialez eta elikagaiez hornitzea, bai eta garbiketa- eta higiene-zerbitzu guztietan ere, bai eta hondakinak maneiatzeko eta kontserbatzeko zerbitzu guztietan ere.

Aurreko guztia kontuan izanik Bizkaiko egoitzak (egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak) eta Bizkaiko hirugarren adinekoen egoitza-zentroen sektoreko greba-deialdiari dagokionez, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu beharko ditu bermatzeko funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiela egoitza-arretan, bat etorritan honako arau hauetan ezarritakoarekin: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten

adinekoentzako eguneko zentroi buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Horren haritik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak manu horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du inondik inora de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; hala, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrekoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraikiz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Adinekoen egoitza-zerbitzuetako eta eguneko zentroetako zerbitzu publikoak «ezinbestekoak» dira, aldez aurretik aipatu ditugun arauetara jarraikiz. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendekotasuna duten pertsonak dira, zeinak osasun-gabezia larriak izaten baitituzte, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar dute, arreta emateko bai haien autonomiari baita legeak onartu dien mendekotasun-mailari; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1. artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarritzotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba-eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza-harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituen, iraunkor bihur daitezkeen baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetzaren unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetzaren zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Araudiak honako zentro-mota hauek bereizten ditu: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikoak eskaintzen dituztenak.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonen eguneroko askotan behar dute laguntza eguneroko oinarrizko jardueren batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galduta dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jardueren batzuk egiteko, egunean bizipahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolahi ere, laguntza-premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jardueren batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

4) Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integral eta integraturako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

5) Sektore horretan pertsonen ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozialetan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasun-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta

daudelako. «Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, zirkunstantziaren arabera, higie pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendekotasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuaren» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza ematea.

COVID 19a dela eta, osasun-agintariek egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan egin beharreko gomendioen artean sartu dituzte hainbat betebeharrak, lehendik egiten ziren funtsezko zerbitzuen artean sartu behar direnak. Zehazki, antolaketa-eredu berrietatik datozenei buruz ari gara, tartean nabarmentzekoak sektORIZAZIOA eta LANGILEEN TALDEEN ARABERAKO BANAKETA. Gainera, erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzien kontrolarekin eta taldeko edo/eta banakako jarduerak egiteko moduarekin lotutako zeregin berriak sartu dira, bai eta egoitzen egoera klinikoaren gaineko kontrola ere (higie areagotzea eta abar).

Euskal Autonomia Erkidegoan txertaketa-maila biztanleriaren %92ra iritsi den arren eta joera-aldaketa positiboa erregistratu den arren, birusaren transmisioak muturrekoa izaten jarraitzen du eta kutsatzeko arriskua, oraindik, oso handia da herritarren artean eta, horrek, kutsatzeen eta agerraldien gorakada handia eragin du ingurune soziosanitarioan.

Izan ere, azken egunetan, inauteriak izan direla eta, osasun-agintariek berriro ohartarazi dute kasu kopurua handitu egin dela eta, gaixotasunak biztanlerian duen eragina areagotu egin dela.

Horregatik guztiagatik, zentro horietarako ezarritako osasun-gomendioek indarrean jarraitzen dute erabat, eta, beraz, zuzeneko arretan %100etik beherako ehunekoak bideraezina egingo luke neurri horiek betetzea, eta kutsatzeko arriskuan jarriko lituzke zerbitzu horien erabiltzaileak.

Hala gomendatzen du, berariaz, aurretik aipatutako Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak 2022ko urtarrilaren 31n egindako txostenak, zeinak behin eta berriz azpimarratzen baitu beharrezkoa dela zentro soziosanitarioetan COVID-19a zaintzeko eta kontrolatzeko protokoloari zorrotz eustea, bai eta jendeari arreta ematen zaion espazio eta lantokien garbiketa eta aireztapen eraginkorra bermatzea ere, oinarrizko prebentzio-neurriak baitira.

6) Baina, arreta zuzeneko zerbitzuez gain, zeharka horiei lotutako beste zerbitzu batzuk ere ematen dira, neurri txikiagoan bada ere (sukaldea, garbiketa, arropa-garbitzea...); badira, halaber, egoitzetako instalazio eta zerbitzuen koordinazioan, mantentze-lanetan eta segurtasunean laguntzen duten zerbitzuak ere.

Aurreko aginduetan, zerbitzu hauen intentsitatea eta horiek egiteko langile-kopurua baxuagoak izan dira arreta zuzenekoak baino. Hala ere, lehen ere adierazi dugun bezala, SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako egoeran, osasun-agintaritzek hainbat neurri eta gomendio onartu eta argitaratu dituzte, zeharkako zerbitzuekin ere lotuta, besteak beste

garbiketarekin eta arropa-garbitegiarekin. Nahiz eta aurreko deialdietan zerbitzuon intentsitatea eta langile-kopurua baxuagoak izan diren, egungo egoera kontuan hartuta eta osasun-arloko neurriak eta gomendioak ikusirik, zeharkako zerbitzu horiek nabarmen areagotu behar dira.

Hori dela eta, garbiketa-zerbitzua indartu behar da, osasun-agintarien neurrietan zehaztutako intentsitatea eta maiztasuna bete dadin; hau da, bereziki da nabarmentzekoa garbiketa-zerbitzua, eta zehazki, zentro guztiaren desinfekzioa. Hala, maiztasuna areagotu egingo da: txanda bakoitzean gutxienez garbiketa bat, erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan garbiketa sakona egiteko, bai eta kontaktu gehien duten gainazaletan ere, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, telatuetan, telefonoetan, tabletetan, gupil-aulkietan, makuluetan eta abar.

Arropa-garbitegiaren zerbitzuan, halakorik duten zentroetan, mihiseria guztia eta zerbitzuari dagozkion gainerako lanabesak garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala ere garbituko da. Zerbitzu hori indartu eta handitu egin behar da. Izan ere, koronabirusak eragindako egungo epidemia kontrolatzeko osasun-agintariak zehazten duten bezala, arreta berezia jarri behar da arroparen garbiketan. Ondorioz, arropa-garbitegiaren zerbitzuak eman behar dituzten langileak %90era arte areagotu behar dira, eta, hala, osasun-agintaritzek gomendatu duten bezala egin ahalko da zerbitzua.

Sukalde zerbitzuari dagokionez, elikagaiak prestatzeko sukalde-zerbitzua izango da, baina horiek, medikuak zehatz-mehatz hala preskribatu ezean, ahalik eta modurik erraz eta sinpleenean prestatuko dira, eta erabili ondoren botatzen diren tresnak baliatuko dira, lan honetan ahalik eta denbora gutxien emateko protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuak behar bezalako higieena zaintzeko zerbitzuak dira, eta zeharkakoak izan arren, beharrezkoak dira. Bada, arlo honetan, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarrizko zereginak bete beharko dira, intentsitate baxuagoa ezarri arren.

Harrera eta atezaintzako zerbitzua ere zeharkako zerbitzuen barruan dago, eta zerbitzu hori ere indartu behar da. Izan ere, zentroetara egiten diren bisiten gainean ere egin dituzte gomendioak osasun-agintariak. Ildo horretan, zentroaren bisita-planaren diseinuak beharrezko arreta-neurriak hartu beharko ditu aglomerazioak saihesteko (Covid 19 zaintzeko eta kontrolatzeko protokoloa, eremu soziosanitarioko egoitza-zentroetan, 2022ko urtarrilaren 17koa).

Mantentze-lanetako zerbitzuak ezinbestekoak ez, baina oso lagungarriak izan badira greba honetan gutxienez hartutako gainerako zerbitzu eta instalazioen funtzionamendua egokia izan dadin. Gutxieneko zerbitzu horien funtzionamenduan eragin dezaketen ezustekoei erantzuna eman behar zaie, komunitatearentzako funtsezko zerbitzuak bermatzeko.

7) Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginak dagokienez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan

(jaiki, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

8) Grebaren eraginpeko zentroen konfigurazio berezia ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsoneri arriskurik sortu gabe emango direla.

9) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituztenen osasuna.

Eremu horretan, halaber, salbuespenezko egoeraren ondorioz, gutxienez ezarri ohi diren zerbitzuak indartu egin behar dira, osasun-agintaritzen gomendioak betetzeko. Kasu honetan, erabiltzaileen egoera klinikoan kontrol handiagoa egin beharra dago, eta osasun-zerbitzuen erabilera kontrolatua egiteko gomendio orokorrak aplikatu behar dira. Ondorioz, langile horiek egin ohi dituzten lanak areagotu egin behar dira, osasun-agintaritzek egiten dituzten gomendioak betetzeko.

10) Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarrizko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarrizko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten eta greba egintzat har dadin.

11) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoan ezartzen dira — langileen lan-karga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta— gizarte-baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak (Dekretu hori uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez indargabetu bazen ere, aplikagarria da oraindik ere, azken horren lehen xedapen iragankorraren arabera). Ratio horiek saihestu daitezke greba-

egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarrizko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

12) Aurreko 6. puntuan zehazten diren zerbitzu horietarako (sukaldaritza, garbiketa, arropa-garbitegia eta harrera-atezaindegia) zuzeneko arretaren eta zeharkako arretaren ezinbestekotasunaren irizpide bera aplikatu behar zaie, baita ere laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroak ere, zeinetan, oro har, langile gutxiago baitaude egoitzetan baino, antzeko kasuan daude; urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez arautzen dira zentro horiek, eta baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. apartatua, hain zuzen, langileei buruzkoa da).

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, *“greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroei eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroei dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan-jarduera, lanegun bat baldin bada”*.

Zentro horietan funtsezko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen garraioa, baldin eta egin behar dituzten joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-ahalmenera egokitutako bestelako garraio bideen bitartez. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan).

Horren harira, gobernuko agintaritza honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko Epaiak, zeina 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdirako ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko aginduarekin lotuta eman baitzen, eguneko zentroek ematen duten zerbitzuan sartzea bermatzen duelako garraio mota hori ezinbestekoa zela onartu bazuen ere, ulertu zuen xedapen hori arrazoitu beharra zegoela *«zerbitzuak eman behar dituzten enplegatuen greba-eskubidea mugatzearen proportzionaltasunaren ikuspuntutik»*, eta, beraz, garraio-zerbitzu horiek eman behar zituzten langileen ehunekoa adierazi behar zela.

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealtate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela-eta, aipatutako testua nahikotzat jo zuen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri %100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaieke greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraio biderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

13) Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien guztirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte esandakoarekin bat etorritz, eta guztia laburbiltze aldera, kontuan hartu behar da Bizkaiko egoitzen sektorean (egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak) eta Bizkaiko hirugarren adinekoen egoitza-zentroen sektorean 2022ko martxoaren 17rako deitutako greba-eskubidea gauzatu bitartean ezinbestekoa dela «zuzeneko arretako zerbitzuak» eta zerbitzuen esentzialtasuna bermatzeko ezinbestekoak diren beste jarduera batzuk egiteko ezinbesteko pertsona kopurua eskaintzea. Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu Gobernuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Azken bi urteetan, greba-deialdi ugari egin dira zaharren egoitza eta etxebizitza komunitarioen sektorean, bai Araban, bai Gipuzkoan, bai Bizkaiko hainbat egoitza pribatutan.

Bizkaiko adinekoen egoitzen sektore horretan bertan, aurretiazko bi greba-deialdi egin dira, antzeko ezaugarriak dituzte, lehenengoa 2022eko abenduaren 14an erregistratua eta bigarrena otsailaren 8an. Deialdi horien ondorioz, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2021eko abenduaren 10eko Agindua, eta otsailaren 3ko Agindua eman dira.

Era berean, duela gutxi, 2022ko otsailaren 23ko agindua eman da, Ermuko VITALITAS ABELETXE egoitzan 2022ko otsailaren 24rako, martxoaren 10erako eta martxoaren 24rako deitutako grebaren ondoriozkoa; eta 2022ko martxoaren 4ko Agindua,

“Centro Jesus Maria de las Madres Mercedarias de la Comunidad de Ibarra” deitutako grebarako gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituen, otsailaren 8, 9, 10 eta 22, 23, eta 24rako deitutako grebaren ondoriozkoa.

Aipatzeko bai “CONDE DE ARESTI” egoitzan 2021eko apirilaren 8tik aurrera deitutako greba mugagabeak, bai Mungiako “SAN JOSE ETXE ALAI” egoitzan 2021eko apirilaren 8, 9 eta 12rako deitutakoak, biak ere aztergai dugun greba-deialdiak eragindako sektorekoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuak, zeinetan agindu bana eman baitziren 2021eko apirilaren 7an. *San Jose Etxe Alai* egoitzako grebako gutxieneko zerbitzuak ezartzen zituen Aginduaren aurka, ELA sindikatuak 342/2021 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2021eko urriaren 28an emandako 411/2021 Epaiak ezetsi egin zuen.

Halaber, Arabako egoitza eta etxebizitza komunitario pribatuen sektorean, 2020ko urriaren 6ko, 2020ko abenduaren 18ko, 2021eko otsailaren 15eko, 2021eko martxoaren 31ko, 2021eko maiatzaren 10eko, 2021eko maiatzaren 31ko, 2021eko ekainaren 7ko eta 2021eko uztailaren 5eko aginduak eman dira. 2020ko urriaren 6ko Aginduaren aurka, 2020ko urriaren 7ko eta azaroaren 11ko eta 25eko greba-deialdiei buruzkoa, ELA sindikatuak 1013/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen. Errekurtso hori ezetsi egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2021eko otsailaren 24an emandako 82/2021 epaiaren bidez, eta horrek berretsi egin zuen errekurritutako agindua.

Bestalde, Gipuzkoako adinekoen zentro pribatuen eta Gipuzkoako adinekoen egoitzen sektorean, 2020ko urriaren 2ko, 2020ko abenduaren 4ko, 2021eko otsailaren 22ko, 2021eko irailaren 21eko eta 2021eko urriaren 26ko aginduak eman dira. Lehenengoa, 2020ko urriaren 6ko greba-deialdiari buruzkoa, 1005/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuten ELA eta LAB sindikatuek. Errekurtso hori ezetsi egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2021eko apirilaren 20an emandako 148/2021 epaiaren bidez, eta horrek berretsi egin zuen errekurritutako agindua.

Gainera, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren aginduak eman dira, 2021eko urtarrilaren 22koak eta 2021eko otsailaren 26koak. Agindu horien bidez, bermatu egiten da EAEko hiru lurraldeetan 2021eko urtarrilaren 26rako eta martxoaren 4rako deitutako greba sektorialerako zaintza-arloan komunitateari ematen zaion funtsezko zerbitzua mantenduko dela, eta eremu horretan sartzen da greba honetara deitutako sektorea.

Aipatutako guztia eta, besteak beste, 1.288/2017 eta 873/2018 jurisdikzio-babeseko baliabideetan emandako epaiak baloratu dira aurreko deialdietan gutxieneko zerbitzuak ezartzerakoan. Hain zuzen ere, aipatutako bigarren epaiak, aurrekoarekin lotuz, honako hau dio berariaz: *sektorearen berezitasunari dagokionez, zerbitzuen eta egoitzen hartzaileen berezitasunari dagokionez, gutxieneko zerbitzuak ezartzeko orduan jardutea justifikatzen dela, prebentziozko izaerarekin, Aretoaren aurrekari batzuetan Bizkaiko*

grebari dagokionez baloratu ziren egoerak ez sortzeko, egoerei buruzko epai guztiengatik, 1288/2017 Jurisdikzio-babeserako errekursoan emandakoari.

Adierazi dugunez, hainbat dira egoitza pribatuetan eta egoitza horien sektorean eman diren gutxieneko zerbitzuen aginduak. Aipatutako agindu horietan jasotako gutxieneko zerbitzuak greba honetan ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak finkatzeko aurrekari juridikoa ez badira ere, Konstituzio-doktrinak debekatutako inferentzia baita, agindu horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesek Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan –greba eskubidean barne- eragin dituzten ondorio positiboak edo negatiboak egiaztatzeko aukera ematen dute. Horregatik, funtzioen, lurraldearen eta denboraren arteko antzekotasuna kontuan hartuta, bai eta eraginpeko pertsonen kolektiboena ere (enpresak, grebarekin bat egin duten pertsonak eta zentroetako erabiltzaileak), agindu honek aurretik aipatutako Aginduetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak mantentzen ditu.

Amaitzeko, gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak aplikatzeko moduari dagokionez, Agindu honek 2019ko maiatzaren 20ko Aginduan ezarritako kalkulu-metodoa errepikatzen du. Agindu hori Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitzen sektorean 2011ko maiatzaren 21etik 25era bitarteko greba-deialdia dela-eta eman zen. Bertan, aldatu egin zen gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak aplikatzeko modua, modu horretan ukitutako eskubideak babesten saiatuz, eta hori errepikatu egin da ondorengo aginduetan.

Gai honetan «gobernu-agintaritzari» eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidea baliatzeak izan behar dituen mugak –funtsezko zerbitzu jakin batzuk mantentze aldera, oinarritzko beste eskubide batzuk betetzera bideratuta baitaude–, Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, eta gobernu-erantzukizuna eta -ahala duenak baino ezin izango dituela ezarri.

Hori dela eta, Lan Harremanei buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkari, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharrianari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalaren arabera, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak xedatzen duen eskumen delegatuak egikaritzea dagokio, zerbitzu publikoak edo premia bizia eta atzerazina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren

bermeak ezartzeko eskumena, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Enpleguko Bigarren Lehendakariorde eta Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- 1. Bizkaiko Egoitzen sektoreko (egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak) eta Hirugarren Adinekoen Bizkaiko Egoitzen sektoreko langileen greba-eskubidea, 2022ko martxoaren 17rako deitua, martxoaren 16ko 0:00etatik martxoaren 17ko 24:00etara, gutxieneko zerbitzutzat hartu behar diren eta egoiliarren bizitza eta osasuna bermatzen dituzten zuzeneko arretako zerbitzuak mantentzearen baldintzapean egikarituko da. Beraz, behar diren zerbitzuak emango dira egoiliarrek ohetik jaikiarazi eta oheratzeko (jarrera-aldaketak eta abar barnean hartuta), osasun-asistentziarako (botikak, sendaketak...), baita oinarrizko higiene pertsonalerako, elikadurarako eta botikak banatzeko. Era berean, berariaz bermatuko da honako hauetan ezarritako gomendioak beteko direla: zentro soziosanitarioetan COVID-19tik babesteko Protokoloa, eta egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitu eta desinfektatzeko Jarraibide Teknikoa -01 (JT-01) —Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eginak eta I. eta II. eranskin gisa sartu direnak Agindura—, bai eta egoitza-zentro bakoitzak aurreko horiek betetzeko garatu dituen Kontingentzia-Planak ere. Era berean, oinarrizko zeharkako arreta-zerbitzuak ezartzen dira gutxieneko gisa.

2. Jarraian aipatzen diren langileek ondoren zehazten den moduan egin beharko dituzte jarduera horiek:

2.1. Oro har:

2.1.1. Portzentajea kalkulatzeko:

a) Ehuneko 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxieneko zerbitzuak eman ditzan.

b) Gainerako kasuetan, emaitza zenbaki zatikiarra bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.1.2. Artikulu honetan gutxienekotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arreteti.

2.1.3. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

2.1.4. Medikuak bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez duen heinean, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei emateko prozesua ahalik eta modu simple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuta eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi dutenetatik ahalik eta langile gehienek baliatu ahal izan dezaten eskubide hori. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.5. Lehentasuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higie pertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek — betiere, medikuak aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber, oinarrizko higie pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da, beti, grebaldian, erantsitako agirian jasotako gomendioak betez.

2.1.6. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan baino ez dira egingo garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun-gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere. Hala, zentro osoa sakon garbitzen dela bermatu beharko da, desinfekzioa barne, eta garbiketa-lana areagotu egingo da erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan, nahiz kontaktu handiko gainazaletan, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan, tabletetan, gurpil-aulkietan, makuluetan eta abar. Txanda bakoitzean gutxienez behin egin beharko da garbiketa.

2.1.7. Arropa-garbitegiaren zerbitzuan lan hauek egingo dira: egoiliarren azpiko arropa garbitu eta lehortzea, eta arropa zapala garbitu eta lehortzea (maindireak, burkoak eta eskuoihalak).

2.2. Egoitzak:

Egoitzetan, gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egin behar du txanda guztietan, arreta zuzena ematen duten heinean.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

2.3. Eguneko zentroak:

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

2.4. Etxebizitza komunitarioak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen % 60 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori % 10 igoko baita. Gaueko txandan, gerokultoreen edo horien parekoen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

2.5. Osasun-langileak:

OLT/EUD langileen % 100 egongo da, egin ohi dituzten zereginen % 100 egiteko eta osasun-agintaritzek egin dituzten prebentzio-gomendioak betetzeko, 1.1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

2.6. Sukaldeko langileak:

Langileen % 50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

2.7. Garbitzaileak:

Langileen % 100ek lan egingo du. Garatu beharreko lanak agindu honen 2.1.6. apartatuan aipatutakoak izango dira.

2.8. Arropa-garbitegiko langileak:

Normalean lan horretarako betetzen den lanaldiaren % 90ean emango da zerbitzua, agindu honen 2.1.7. apartatuan azaldutako zereginak egiteko.

2.9. Mantentze-lanetako langileak:

Jaiegunetan egoten den langile-kopuru berdina egongo da, eta jendearen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria izan dezaketen premiazko eta atzeraezinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.

2.10. Ateko/harrerako langileak:

Egoitzetako sarbide nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko emango da zerbitzu hori. Pertsona bakarra egongo da txanda bakoitzean, eta berau arduratuko da bisitak erregistratzeaz eta bisitarien tenperatura hartzeaz. Kontrol horretan sartuko dira bai erabiltzaileak, bai bisitak, osasun-gomendioetan ezarritako mugak bete daitezten.

BIGARRENA. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

HIRUGARRENA.- 1. Agindu honen 2.1.3. zenbakian ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da zer langilek bete behar dituzten zerbitzu horiek.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira. 24 ordu lehenago jakinaraziko diote sindikatu-ordezkaritzari nork bete behar dituen eginkizun horiek.

LAUGARRENA.- Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

BOSGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

SEIGARRENA.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

ZAZPIGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.



Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURU**